

## GIG 14

## ZUMAIAKO FLYSCH MAASTRICHTIARRA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,63

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Algorriren mendebaldeko ertzean, Kretazeoaren bukaerako segida bat dago azaleratuta, 200 metro ingurukoa: kareharriak eta karekizko tupak ditu geruza txandakatuta, eta haietan, turbidita finak dau-de tartekatuta. Litologia horrek erakusten du itsas hondoa sakona (2.000 m ingurukoa) eta lasaia izango zela; eta hori estai horren hasieran izandako transgresioaren ondorioz eratu zen. Itsas mailaren igoera horrek urrundu egin zuen Campaniarreko flysch hareatsuko turbiditak ekialdetik ekartzen zituen kono turbiditikoak (Pirinioen eraketaren eraginez ekartzen zituen), eta horrenbestez, sedimentazioa lasai eta sakonera handian gertatu zen Eozenora arte. Lasaialdi horri esker, zehazki islatu dira periodo geologiko bizi horretako eboluzioa nahiz aldaketa biologiko, klimatiko eta geologiko handiak (KT muga, Milankovitch, PE muga...).

Giro horretan, sedimentazio-tasa oso txikia izan zenez, segida kondentsatu bat eratu zen, eta haren aldaketa litologikoek zehatz-mehatz erakusten dituzte itsas mailaren aldaketa txikiek eragindako sekuentzia deposizionalak.

Paleontologiaren ikuspuntutik ere oso segida garrantzitsua da, batik bat, foraminifero planktonikoen oparotasunagatik, inozeramidoen suntsipenaren mailagatik eta KT mugako suntsipenaren aurreko azken amoniteen agerpenagatik. Ekinoideoen hondakinak, ostreidoak eta zenbait aztarna fosil ere badaude; azpimarratzekoak dira *Zoophycusen* adibide ikusgarri batzuk.

## NOLA BERTARATU

Zumaiako segida maastrichtiarrera iristeko, Algorriko eskaileretatik jaitsi behar da. Azalaramendua mendebaldean dago nagusiki, baina ura behe samarrean dagoenean bakarrik joan daiteke bertara, eta kontu handiz ibili behar da, gainera.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ* edo Algorriko begiratokia.



Zumaiako segida maastrichtiarraren ikuspegi orokorra.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 559269 m / Y= 4794331 m / Alt.= 1 m



*Zoophycus* handi-handi bat, gertutik ikusita.